

2020 QIA: NOLA BETE FORMULARIOA ETA ERANSKINAK: ARGIBIDEAK ETA PRAKTIKA ONAK

Argibide hauek informazioa emango dizute zure erakundeak **Quality Innovation Award** lehiaketan parte hartzeko eskaera nola bete behar duen jakiteko.

Aurretiko gogoetak:

- Lehiaketan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko edo pribatu guztiek, bai eta kudeaketa gaitasun nahikoa duten erakunde handietako negozio unitateek ere.
- Urtero, hautagaitza bakarra aurkeztu ahal izango du erakunde bakoitzak, eta hautagaitza bakoitza lehiaketako kategorian batean kokatu ahal izango da (unibertsitateen kasuan, hautagaitza bat aurkeztu ahal izango da fakultateko, eta osasun erakunde integratuen kasuan, bat zentroko).
- Lehiaketa honetara aurkezten diren berrikuntza praktikak ezingo dira berriro aurkeztu hurrengo urteetan. Salbuespenak izango dira aurten *Berrikuntza Potentziala* kategorian lehiatu, eta gerora, behin emaitzak jasotakoan, berrikuntza beste kategorian batean aurkezten dutenak.
- Hautagaitzak jaso ondoren, EUSKALIT erakunde guztiekin jarriko da harremanetan, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta hautagaitza onartuko duen baieztatzeko. EUSKALITEK beretzat gordeko du argi eta garbi berrikuntza dela nabarmentzen ez duten hautagaitzei uko egiteko eskubidea.
- Berrikuntzak fruituak eman dituela egiaztatzeko moduko emaitzak aurkezten ez diren kasuetan, EUSKALITEK beretzat gordeko du hautagaitzak *Berrikuntza Potentziala* kategoriara lekualdatzeko eskubidea, aldeztuz aurretik erakundeari jakinaraziz, betiere.

Arren, kontuan izan ebaluatzaileek eta lehiaketako epaimahaikideek batez ere eskaera horretan oinarrituta egingo dutela euren ebaluazio lana. Informazio garrantzitsu guztia *Hautagaitza Erregistratzeko Formularioan* gorde behar da, nahiz eta komenigarria den *Eranskinetan* gehitzea berrikuntzaren zergatikoari eta emaitzei buruzko datu gehiago (adierazleak, grafikoak, pantaila argazkiak...). Ondoren, eskura jarriko dizkizugu baliagarriak izango zaizkizun ideiak eta praktika onak, lehiaketan zure hautagaitzak arrakastarako aukera gehiago izateko garrantzitsua den guztia agerian jartzeko .

Txapelketan parte hartzeko jarraitu beharreko pausuak:

Txapelketan parte hartu nahi duten erakundeek hurrengo pausuak jarraitu behar dituzte:

1. **Aurretiko izen ematea:** Pausu honetan erakundearen inguruko oinarritzko datuak eta harremanetarako pertsona emango dira. Helburua txapelketan parte hartzeko nahia erakustea da eta ez da loteslea. *Aurretiko izena* Euskaliten webgunearen bitartez emango da: <https://www.euskalit.net/eu/quality-innovation-award.html>.
2. **Hautagaitzen aurkeztea:** Pusu honetan praktika berritzailearen behin-betiko datuak aurkeztuko dira. Horretarako, *Erregistrorako Formularioa* deskargatuko da, informazioa beteko da eta hodeira igoko da aurretiko *Online Formularioan* idatzitako informazioa osotuz. Momentu honetan besterik ez QIA txapelketan parte hartzea formala izango da. *Erregistrorako Formularioak* azalpenak 4 orritako luzeran ematea ahalbidetzen du eta 10 orri arteko *eranskin osagarriekin* (bost eranskin gehienez) bateratzea gomendatzen da. Euskaliten webgunean agertzen den formularioa deskargatu: <https://www.euskalit.net/eu/quality-innovation-award.html>.

Aurretiko izen ematearen eta hautagaitzen aurkezpenaren datu inguruko informazioa <https://www.euskalit.net/eu/quality-innovation-award.html> webean begiratzean gomendatzen dizugu.

HAUTAGAITZA ERREGISTRATZEKO FORMULARIOA:

Formularioak gehienez ere 3 orri edukiko ditu, eta bertako edukia honela banatuta egongo da:

- **Erakundeari buruzko datuak:** Erakundearen izen ofiziala, posta helbide osoa, IFK, lehiaketa honetarako erakundearekin harremanetan jartzeko pertsona (izena, helbide elektronikoa, telefono zenbakia)...
- **Berrikuntza kokatzen den lehiaketaren kategoria:** Berrikuntzak parte hartuko duen kategoria markatu eta besteak ezabatu.

Uste baduzu praktika batek hainbat kategoriatan lehia dezakeela, lehentasun maila txikieneko aukeratu. Esaterako, ETE batek hezkuntza sektore publikoan egindako berrikuntza bada, 'Hezkuntza sektoreko berrikuntza' aukeratu beharko zenuke kategoria gisa; izan ere, horrexek du hiru aukeretatik lehentasun maila txikiena.

- **Berrikuntzaren ezaugarri buruzko informazioa:** berrikuntza (berritasuna, erabilgarritasuna eta ikaskuntza) eta kalitatea (bezeroari begirako orientazioa eta eraginkortasuna).

ERANSKINAK:

Hautagaitzari buruzko informazioa biltzen duen formularioaz gainera, nahi izanez gero, **gehienez ere 10 eranskin orri gehitu ahal izango dira (5 eranskin osagarri guztira)**, *Hautagaitzarako Formularioko* informazioa osatzeko. Eranskinak, hain zuzen, hautagaitzarako lehenengo hiru orrien atzetik erantsiko dira.

HAUTAGAIAREN FORMULARIOA BEHAR BEZALA BETETZEKO PRAKTIKA ONAK:

Berrikuntzaren izenburua

Gehienez ere 100 karaktere eduki beharko ditu. Ahalik eta argien eta zehatzen idatzi.

[A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGIA, SAUren adibidea:](#)

Berrikuntzaren izenburua:

Ekoberrikuntza, enpresa arrakastarako faktore.

Berrikuntzaren esaldi bateko deskribapena

Labur-labur deskribatu behar duzu zure erakundearen berrikuntza zertan datzan. Pentsa ezazu horixe dela salmentarako argudioa, eta esaldi bakarra balia dezakezula berrikuntza zertan den gainerakoei azaltzeko. Galdera honi emandako erantzunak izan beharko luke horretarako irtenbidea: Zein da berrikuntza? Kontuan hartu deskribapenak gehienez ere 200 karaktere eduki ahal izango dituela.

[A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGIA, SAUren adibidea:](#)

Berrikuntzaren esaldi bateko deskribapena:

Erakundearen berrikuntzaren eguneroko kudeaketan, teknologia garbiak, ekodiseinua, karbono aztarna, aztarna ekologikoa eta bizi zikloaren kostuaren azterketa.

Berrikuntzaren deskribapena

Deskribatu berrikuntzaren historia. Zergatik garatu zenuten berrikuntza hori? Zer ekintzaren bitartez garatu duzue berrikuntza? Berrikuntzarekin zer emaitza lortu dira edo lortuko dira? Deskribapen horrek ulertteraza izan beharko du, baita irakurtzen duen pertsona berrikuntzaren arloan aditua ez den kasuetarako ere.

SORALUCE S. COOP.en adibidea:

Berrikuntzaren deskribapena:

Berrikuntzaren funtsa: Arintze sistema berritzaile aktibo baten bidez, DAS sistemak ezegonkortasun arriskua (chatter) murrizten du, eta aukera ematen du mekanizazio prozesuak mugako mozketak baldintzak lor ditzan, mekanizatuaren errendimendua %300era arte handituz prozesuaren fase ugarian, eta, horrenbestez, ziklo denborak %45era bitarte hobetuz. Halaber, sistemak aukera ematen du gainazalaren akaberako kalitatea hobetzeko, eta tresnen haustura arriskua murrizten du, horien bizitza baliagarria luzatuz.

Abiapuntua: SORALUCEK berrikuntza aukera hau identifikatu ahal izan zuen ikusi zuenean chatter efektuak mekanizazio prozesuen mugatzaile dinamiko gisa duen ahalmena desagerrarazi edo murriztu daitekeela, sektorean atxikita dagoen gaitza baita.

Hasierako kezka horri, bestalde, SORALUCEK IK4-IDEKO zentro teknologikoko Dinamika eta Kontrolaren ikerketa ildoaren ahalmenaren eta aurretiko garapenen gainean duen ezagutza gehitu behar zaio. Zentro horrek alde aurretik dagoeneko erakutsita zeukan arintze aktiboko sistemen erabilerak laborategi ingurunean duen potentziala horrelako mekanizazio prozesuen dinamika hobetzeko.

Emandako pausoak: SORALUCEK berrikuntza proiektu bati heldu zion, non IK4-IDEKoren lankidetzak eskatu zuen, I+G jardueretako bazkide teknologiko gisa. Proiektu horrek produktu bat ekarri zuen; hots, DAS sistema berria.

Erabilitako baliabideak: Aipatutako berrikuntza proiektua 2013an hasi zen, eta 2014an amaitu. SORALUCE-BIMATECek Alemanian antolatutako Innovation Daysetan aurkeztu zen ofizialki, eta SORALUCEren eta IK4-IDEKoren arteko lantalde misto baten sorkuntzarekin osatu da. SORALUCETIK ia sail guztietako langileek parte hartu dute (merkataritzak, eskaintzak, bulego teknikoa, erosketak eta produkzioa), zuzendaritza nagusiaren lidergo eta esku-hartzearekin, proiektu estrategikotzat jo baita. IK4-IDEKotik, berriz, Dinamika eta Kontrol arloko I+G alderdi teknikoetako hainbat ikertzailek parte hartu dute, bai eta Berrikuntza Estrategikoko ikertzaileek ere. Batez ere, lehiarako adimenarekin eta merkaturatzeko laguntzarekin lotutako alderdietan aritu dira lankidetzan.

Arlo ekonomikoan, DAS berrikuntza proiektuak 850.000 € inguruko aurrekontua izan du proiektuak iraun duen ia bi urteetan. Beraz, ezinbestekoa da erakunde publikoei emandako laguntza eskertzea; bereziki, I+G erronkekin lotutako alderdietan euren laguntza programa espezifikoen bidez emandako babesagatik.

Emaitza ekonomikoak eta ingurumenarekin lotutakoak: DAS merkaturatzeak eragina izan du: 2015. urtean ugaldu egin da SORALUCE makinaren salmenta kopurua.

Ia makina guztiek zeukaten DAS sistema, eta horrek balio erantsi handiagoa eman die, baita prezio garestiagoa ere. Aparteko marjina horri esker, SORALUCEK urtebetetik beherako epean lortu du proiektuan egindako inbertsioaren pay-backa egitea.

Beraz, SORALUCEREN lehiarako posizionamendua hobetzeaz gainera, salmenta hazkundera ere ekarri du DASEk, marjina handiagoekin.

Ingurumenaren arloan, bezeroek jaso dituzte hobekuntza nagusiak. Makina potentzia berbera erabilia denbora aurrezteari esker, mekanizazio pieza bakoitzak ingurumen kostu txikia izan du.

Berrikuntzaren BERRITASUNAREN autoebaluazioa.

Zer neurritan asetzen ditu berrikuntzak premia guztiak modu berri batean edo asko aztertutako moduan? Berrikuntza egokia al da?

Idatzi hemen berrikuntzaren ezaugarri berrien autoebaluazioa. Aurkeztu emaitzak eta argudioak, ebaluatzaileak eta epaimahaikideak konbentzitzeko zure erakundearen berrikuntza egiazki gauza berria eta berritzailea dela. Deskribatu zertan bereizten den dagoeneko merkatuan dauden bestelako antzeko ikuspegietatik.

Berrikuntza arduratsuaren kategorietakoren batean parte hartzen baduzu, azaldu beharko duzu, baita ere, berrikuntzak modu berritzailean asetzen dituela gizartearen edo ingurumenaren premiak edo lehendik dauden praktiken hobekuntza nabarmena dakarrela.

TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROAREN adibidea:

Berrikuntzaren BERRITASUNAREN autoebaluazioa:

Gure aburuz, hauek dira aurkeztutako ikuspegiaren faktore berritzaileak:

- 1. LHko Sailburuordetzaren plan estrategikoetan jaso eta lehenetsitako ikuspegi bat da (ekintzaitzaren aldeko apustuarekin jarraitzea).*
- 2. Ikuspegi integrala da, ekintzaitzari ikuspegi guztietatik heltzen diona: kultura ekintzailea sustatzea / enpresa ekimena bultzatzea / irakasleak prozesu osoan txertatzea / irakasleen kompetentzia garapena / zentroetako zuzendaritzak inplikatzeko / Sare osoaren organo koordinatzaile bat egotea (Tknika) / ezagutzari (irakasleak) eta lehendik dauden baliabideei (instalazioak eta ekipamenduak) etekina ateratzea, ikasle eta ikasle ohi ekintzaileen esku jarrita / ekintzaitza programetan parte hartzen duten irakasleen nazioarteko mugikortasunerako proiektu ugaritako parte-hartzea, beste herrialde batzuetan lantzen dituzten praktika onak ezagutzeko eta nork bere esperientziaren berri emateko...*
- 3. Nola sare publikoko, hala pribatu-itunduko LHko Zentroen arteko lankidetzaren eraginkorraren adibide bat da.*
- 4. Garatutako ikuspegiak erabateko gaikuntza eta laneratze maila bermatzen die ikasleei; izan ere, egindako prestakuntza zikloak emandako gaikuntzaz gainera, ekintzaitzarekin lotutako kompetentzietatik eratorritakoa ere ematen die (besteren konturako lana + norberaren konturako lana).*
- 5. 56 erakundek (LHko Zentroak) osatutako sarea kudeatzeko martxan jarritako koordinazio metodologia, helburuak eta programak partekatuz.*

Berrikuntzaren ERABILGARRITASUNAREN autoebaluazioa.

Nola aplikatzen da berrikuntza praktikan? Modu sistematikoan egiten da, erakundeko plan baten arabera? Erabilgarria al da berrikuntza?

Idatzi berrikuntzaren erabilgarritasunaren autoebaluazioa. Nola aplikatu daiteke berrikuntza errealitatean? Berrikuntzak helburu dituen onurak lortzeko modukoak al dira? Aurkeztu emaitzak eta argudioak adierazteko berrikuntza praktikan nola aplikatu den edo aplikatu litekeen.

Berrikuntza arduratsuaren kategorietakoren batean parte hartzen baduzu, berrikuntzak gizarteari edo ingurumenari begira duen orientazioa zein den ere azaldu beharko duzu. Nola heltzen dien berrikuntzak gizarteak edo

ingurumenak oraintxe dituzten edo etorkizunean izango dituzten premiei? Zenbateraino asetzen ditu, edo ahalegintzen da gainditzeko, premia horiek? Nola?

TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROAREN adibidea:

Berrikuntzaren ERABILGARRITASUNAREN autoebaluazioa:

Aurkeztutako ikuspegia garatzen duten programa guztiek (Ikasapresa / Urratsbat / MAE / CoP de Empresas / Ekingune Plataforma) metodologia eta aplikazio sistema berbera dute, parte hartzen duten agente guztiek ezagutzen dutena (fase bakoitzerako eskuliburuak eta lan plangintza zehaztuak daude, baita koordinazio bileren egutegiak, metodologiak garatzeko eskuliburuak, eta jarraipen, neurketa, ebaluazio, hobekuntza eta berrikuntza jarduerak ere).

Aurreko paragrafoan aipatutako programez gainera, ikuspegia osatzeko beste ekimen batzuk gauzatzen dira, helburutzat daukatenak oraingo ikuspegia berritza: “Ekintzailetza Berritzailea” proiektua, “Zentro Ekintzailea” proiektua, “Euskadiko LHko Ekosistema Ekintzailearen” garapena.

Ikaskuntzaren autoebaluazioa.

Berrikuntza pertzepzioetan oinarritzen da? Nola erabiltzen da ezagutza modu berritzailean? Berrikuntza modu naturalean sortu da edo garapen sistematiko batean oinarrituta dago?

Deskribatu berrikuntza hau sorrarazi duen azterketa edo garapen prozesua. Nola erabili dira ezagutza eta *know-how*a ibilbidean zehar? Nola sortu zen berrikuntzaren ideia, eta nola garatu zen ideia hori berrikuntza bihurtu arte? Zer ikasi duzue bidean?

Zertan bereizten da zuen berrikuntza lehiakideek eskaintzen dutenarekiko? Zergatik da garrantzitsua berrikuntza hau, eta zergatik kokatzen du erakundea lehentasunezko tokian lehiakideekin alderatuta?

Deskribatu atal honetan zerk egiten duen praktika berrikuntza izatea, eta zergatik den zure erakundea lehiakideekiko desberdina. Azaldu zer egiten duen zure erakundeak, lehiakideekin alderatuta egoera abantailatsuan egoteko.

INTERAKZIO BISUAL ETA KOMUNIKAZIOKO TEKNOLOGIA ZENTROAREN FUNDAZIOA VICOMTECH – IK4ren adibidea:

Ikaskuntzaren autoebaluazioa:

Gaitzespen kasuak murrizteko premiatik sortutako ideia da, IKT teknologien bidez neurri zehatzak ezartzeko aukera ikertuz. Berrikuntza irekiko kasua da, non era askotako agenteak (erakunde publiko bateko kirurgialari baskularrak, irabazi asmorik gabeko fundazio pribatu bateko ikertzaileak eta oinarri teknologikoko enpresa bat) gai izan diren hizkuntza bateratua eta lankidetzaren ingurune bat bilatzeko, guztien interesak asetzeko moduan.

Horretarako, ezinbestekoa izan da informazio trukeko mekanismoak finkatzea, adituen bilerak egitea eta trukeko guneak sortzea. Eta hori guztia bultzatzeko, Biodonostia Institutua ezarri da osasun sistemaren eta berrikuntzaren ardatz integratzaile gisa. Gaur-gaurkoz, praktika honako honetan oinarritzen da: pazienteei neurri estandarrik jartzen zaizkie, eta, beraz, ideia berri horrek hobetu egiten du pazientearentzako irtenbidea.

Bezeroari begirako orientazioaren autoebaluazioa.

Bat al dator berrikuntza bezeroen oraingo eta etorkizuneko premiekin? Nola asetzen ditu berrikuntzak bezeroen eskakizunak? Bezeroen aurreikuspenak al da berrikuntzaren asmoa?

Deskribatu hemen zure erakundearen berrikuntzak bezeroei, gizarteari eta ingurumenari begira duen orientazioa. Garapen prozesuan, nola hartu dira kontuan berrikuntzaren helburu den taldearen premiak eta igurikapenak? Berrikuntzak nola lortu du interes taldeek bizimodu hobea izatea? Aurkeztu emaitzak eta argudioak, epaimahaikideak eta ebaluatzaileak konbentzitzeko zure erakundearen berrikuntzarako egiazko premia dagoela. Berrikuntza arduratsuaren kategorietakoren batean parte hartzen baduzu, zure erakundearen berrikuntzak gizarteari ekarriko dizkion onurak ere azaldu beharko dituzu. Nola hartu dituzue kontuan gizartearen premiak eta espero duena?

OSAKIDETZAren adibidea:

Bezeroari begirako orientazioaren autoebaluazioa:

Premia konplexuak dituzten pazienteentzako arreta integratuko eredu sortu da, teknologietan oinarrituta, honako arlo hauekin lotuta: laguntzaren kalitatea, eta profesionalen zein pazienteen eraginkortasuna eta gogobetetzea. Ebaluazio esparruan daude bilduta, besteak beste, bizi kalitatea, segurtasuna eta pazientearen pertzepzioaren aldagaiak. Ereduaren garapenean parte hartu dute erabiltzaile eta agente garrantzitsu guztiak. Aurretik, talde fokalak egin ziren pazienteekin eta zaintzaileekin, euren premiak eta igurikapenak ezagutzeko.

Eraginkortasunaren autoebaluazioa.

Deskribatu berrikuntzarekin lortu diren edo lor litezkeen emaitzak. Erakundeak berrikuntzaren zer arrakasta adierazle ditu? Zer helburu finkatu dituzue? Lortu dituzue? Nola alderatzen dituzue emaitzak lehendik dauden produktu, zerbitzu eta berrikuntzekin alderatuta?

Nola hobetu ditu berrikuntzak bezeroekin eta erantzukizun ekologiko zein gizarte erantzukizunarekin lotutako emaitza teknologikoak edo komertzialak?

Berrikuntza arduratsuaren kategorietakoren batean parte hartzen baduzu, zure erakundearen berrikuntzak gizartean, ingurumenean edo bizitzan modu positiboan nola eragin duen azaltzeko emaitzak edo argudioak ere aurkeztu beharko dituzu. Zein da zure erakundearen berrikuntzaren inpaktu eremua?

TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROAREN adibidea:

Eraginkortasunaren autoebaluazioa:

Ikuspegiaren arrakasta adierazleek lotura dute, batetik, kultura ekintzailea sustatzeko alderdiekin (ikasleen ekimenarekin zerikusia duten konpetentzien garapena -> Alderdi PEDAGOGIKOA), eta, bestetik, sortutako jarduera ekonomikoaren gizarte inpaktuarekin zerikusia duten adierazleekin -> Alderdi EKONOMIKO / SOZIALA (ikusitako taulari buruzko eranskina).

ERANSKINAK BEHAR BEZALA BETETZEKO PRAKTIKA ONAK:

Gogoratu *Hautagaitza Erregistratzeko Formularioaren* lehenengo hiru orrietan jaso beharko duzula ebaluazio taldeak bere lana egiteko beharrezkoa izango duen informazio guztia. *Eranskinak* aukerakoak dira, hautagaitza osatzeko baliagarriak.

Egokiena litzateke *Hautagaitza Erregistratzeko Formularioan* deskribatutako informazioari datu gehiago gehitzea (adierazleak, grafikoak, pantaila argazkiak...).

Hona hemen eranskinetan txerta daitekeen informazio motaren edo moduaren berri ematen duten elementu batzuen adibideak. *Hautagaiaren Formularioan* aurkeztutako informazioa osatzeko baliagarriak.

1. adibidea, TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA:

URRATSBAT Programa – Ekimen Ekintzailea

URRATSBAT	Acumulados (desde 2004-05)	2012-13	2013-14	2014-15
Nº alumnos sensibilizados	53.751	6.066	7.203	9.194
Nº proyectos tutorizados	1.193	147	199	232
Nº empresas creadas	521	60	74	71
Nº centros participantes (*)	-	42	45	50
<i>(*) En el presente curso 2015-16, hay 56 Centros participantes</i>				
% supervivencia empresas	72,75 %			
Perfil medio empresa Urratsbat (1º año de actividad)				
-Facturación			50.000 €	
-Inversión			20.000 €	
- Empleo			1,64 empleos	
Esfuerzo Viceconsejería de FP (1)			9.000.000 €	900.000 €
Facturación total por parte de las empresas creadas (primer año de actividad) (2)			26.050.000 €	3.550.000 €
Inversión total de las empresas creadas (primer año de actividad) (3)			10.420.000 €	1.420.000 €
Empleo generado (primera años de actividad)			854 empleos	116
Relación facturación empresas (2) / esfuerzo VC (1)			2,89	3,94
Relación inversión empresas (3) / esfuerzo VC (1)			1,16	1,58

2. adibidea, TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA:

IKASENPRESA Programa – Kultura Ekintzailea

IKASENPRESA	Acumulados (desde 2005-06)	2012-13	2013-14	2014-15
Nº alumnos implicados	9.925	1.064	1.500	2000
Nº profesores participantes	992	58	74	95
Nº de "Ikasempresas" creadas (empresas educativas)	1.310	187	229	326
Nº centros participantes (*)	-	36	40	46
<i>(*) En este curso, 2015-16, participan en el programa 53 Centros</i>				

Ejemplo nº3- COLEGIO URKIDE IKASTETXEA S.COOP.:

¿Qué fundamentos teóricos respaldan este Proyecto?

En primer lugar, los niños disponen de una capacidad creativa de partida que, no solo no desarrollan en el Colegio, sino que éste se encarga de reducirla a través de medidas que tienen que ver muchas veces con el mantenimiento del orden, la aplicación de normas de convivencia, o con las propias metodologías academicistas en el aula (Sir Ken Robinson) No consiste en abrir todos los momentos de la jornada escolar a la creatividad. Los niños deben reconocer la necesidad de cumplir con las normas y de mantener un orden básico, así como realizar actividades propias de cada materia en el aula. Pero también pueden saber que habrá momentos para la reflexión, para aportar ideas, para la iniciativa y la búsqueda conjunta de soluciones, para la participación, dentro de las horas de las asignaturas y en otros momentos “especiales”. A nadie se le puede pedir, ni se le puede exigir, que sea en todo momento creativo. El proceso de creación supone de una preparación previa. Es preciso que el alumnado conozca y practique ciertas técnicas de motivación o de reacción ante el fracaso, por ejemplo, antes de participar en una actividad creativa. Hasta la creatividad tiene sus reglas y sus procedimientos y el alumnado debe interiorizar. Creatividad ¿para qué? Es preciso que se incorpore en el profesorado y al final en el alumnado, una motivación intrínseca hacia el proceso creativo. Han de aflorar las posibilidades que se le presentan al profesorado para hacer clases más dinámicas y con mayor participación del alumnado, con el fin de mejorar esta competencia en los niños. Pero también, el alumnado debe ver estas actividades como actividades en las que al principio jugar, pintar y divertirse, y poco a poco, como herramientas para facilitar la reflexión, momentos para pensar, para compartir, y para resolver sistemáticamente problemas entre todos. Y valorar su participación. Aprender en y con el proceso y no solo en base a resultados. En este proceso, habrá que preparar “cebos” o pequeñas técnicas creativas que ayuden al alumnado a centrar o descentrar, según convenga, su actividad creadora. A tirar de un hilo, a buscar similitudes, a encontrar otros usos,... Es decir, que le ayuden a mirar de otra manera, a ponerse en otra situación, a variar la distancia desde la que se ve el problema,... Es decir, en este juego creativo podrán pedir cartas de ayuda que les abrirán nuevas perspectivas.

video en este enlace: <https://www.youtube.com/watch?v=QUcrLLfnB90>

Ejemplo nº4- COLEGIO URKIDE IKASTETXEA S.COOP.:


ABRETE URKIDE GURE ARTEAN (Ver video en este enlace:
<https://www.youtube.com/watch?v=BCHEzLFTBN0>)

ÁBRETE URKIDE gure ARTEan nace con el objetivo de abrir los espacios del colegio a la creatividad del alumnado, familias y sociedad en general. Queremos que, por lo menos una vez al mes, el que quiera tenga la oportunidad de exponer sus talentos en cualquiera de los espacios del colegio y, a su vez, toda la comunidad educativa pueda enriquecerse al ver esas experiencias creativas diversas. Buscamos “artistas” de cualquier campo o actividad dispuestos a poner en común sus habilidades en nuestras aulas o espacios (sin cerrar la puerta a nadie ni a nada, ¡¡imaginación!!). Nosotros nos encargamos de la gestión del espacio y ponemos a vuestra disposición los recursos del colegio; salas, equipo de música, etc. Solo pedimos que sean gratuitas, que su duración no exceda de 1h 30 minutos y un pequeño resumen de la actividad con antelación para poder valorarla e incluirla en la programación de uno de esos días.

En este último curso hemos tenido una exposición “diferente” y musical sobre El capitán Trueno en el arte y un taller de Biodanza y está preparados un taller de caricaturas para cambiar nuestro punto de vista sobre algunas cosas y un taller de dramatización.


Ejemplo nº5- A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA S.A.U.:

Flujograma Vigilancia Tecnológica (AB-045.PQM)




6. adibidea, A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGIA, SAU:

Zaintza Teknologikoko Fluxugrama (AB-045.PQM)



7. adibidea, A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGIA, SAU:



PRODUCTOS RESPONSABLES PARA UN DESARROLLO SOSTENIBLE

LOGO EMPRESA

ARS Nº 15/XXX

ACUERDO RESPONSABLE DE SUMINISTRO

Las organizaciones **A&B Laboratorios de Biotecnología** y **NOMBRE EMPRESA** con el fin de propiciar la mejora ambiental en la sociedad y la seguridad laboral acuerdan:

- Que **NOMBRE EMPRESA** no adquiere ningún compromiso, el Acuerdo Responsable de Suministro sólo obliga al proveedor **A&B Laboratorios de Biotecnología**.
- Que **A&B Laboratorios de Biotecnología** suministra a **NOMBRE EMPRESA** los siguientes productos:
 - Desbloccante ecológico AE 601**
 - Desengrasante seco AE 618**
- Que **A&B Laboratorios de Biotecnología** proporcionará a **NOMBRE EMPRESA** información básica ambiental y de seguridad para el uso correcto de sus productos.
- Que **A&B Laboratorios de Biotecnología** informará a **NOMBRE EMPRESA** de las mejoras introducidas regularmente en los productos suministrados así como de las mejoras generales llevadas a cabo dentro de la organización y que mejoran la cadena de valor de todos los productos.
- Que **A&B Laboratorios de Biotecnología** permite a **NOMBRE EMPRESA** la difusión de la información proporcionada dentro de su cadena de valor y obtener una retribución del mercado o reconocimiento social por incluirlos.

	Desbloccante ecológico AE 601	Desengrasante seco AE 618
Medio ambiental	<ul style="list-style-type: none"> *Eliminación de componentes peligrosos. *Bastante de disolventes menos contaminantes. *Caja propiamente CD respetuoso con la capa de ozono y material exterior biodegradable. 	<ul style="list-style-type: none"> *Caja propiamente CD respetuoso con la capa de ozono y material exterior biodegradable. *Refinamiento de disolventes menos contaminantes.
Medio seguridad	<ul style="list-style-type: none"> *Producto desinfectado como mínimo. *Producto desinfectado como mínimo por ingestión. 	<ul style="list-style-type: none"> *Producto exento de disolventes clorados o aromáticos.
Otros aspectos	<ul style="list-style-type: none"> *En el diseño del producto se han tenido en cuenta criterios de bienestar. *Decantado bajo Norma ISO 14001 de EcoDiseño, minimizando el impacto ambiental en su ciclo de vida reduciendo el riesgo de contaminación ambiental. 	<ul style="list-style-type: none"> *Biodisponible y alto poder desengrasante. *Los componentes responden a las exigencias del uso de disolventes en industria alimentaria.

Sello y firma

A&B Laboratorios de Biotecnología S.A.U.

Nombre: Jan Kapabagiano
Cargo: Director de Calidad

Sello y firma


NOMBRE EMPRESA

Nombre: _____
Cargo: _____

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2015


8. adibidea, OSAKIDETZA:

ORGANIZATIONAL MODELS: The diagram shows who is involved in caring for and supporting these patients, what functions these actors perform, and how different ICT tools facilitate the delivery of these activities.



9. adibidea, OSAKIDETZA:


INTEGRATED CARE PATHWAY: These integrated care pathways illustrate what a frail elderly patient's journey across the healthcare setting looks like depending on his/her health status.



10. adibidea, SORALUCE S. COOP.:

DAS SISTEMAREN EMAITZAK.

Berri ugariaren arabera, DAS sistemarekin eraginkortasun handia lortu da mekanizatuan. Horren erakusgarri dugu honako grafiko hau, jardun ardatz batekin lotutako test batean lortutako hobekuntzak erakusten dizkiguna.



EUSKALITEK eskerrak eman nahi dizkie Quality Innovation Award 2015eko Tokiko Faseko erakunde finalista eta irabazleei, euren *Hautagaitza Erregistratzeko Formularioak* eta *Eranskinak* zabaltzen uzteagatik:

- **A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGIA, SAU**
- **URKIDE IKASTETXEA S. COOP.**
- **INTERAKZIO BISUAL ETA KOMUNIKAZIOKO TEKNOLOGIA ZENTROAREN FUNDAZIOA VICOMTECH – IK4**
- **OSAKIDETZA**
- **SORALUCE S. COOP.**
- **TKNIKA – LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA**